

Kukai dantza konpainiak, bi Max sari Sagarra jo!

Kukai Dantza konpainia

Maiatzaren 18a. Astelehen ezohikoa izan da Kukai dantza konpainian. Niessen kultureko saio gela eta bigarren solairuko bulegoa hutsik daude. Kukaitarrak Bartzelonan daude. Batzuk asteburutik, besteak bidean... Izan ere, Bartzelonan Arte Ezenikoen MAX sariak banatzen dira.

Para-lel mitikoan alfonbra gorria ageri da. Eguerdirekin partean langileak eta TVEko kamioiak berterik ez dira ikusten; turistaren bat edo beste, baina astelehen arrunt bat dirudi. Arratsaldean, berriz... argazkilari mordoa, telebista kamerak, soineko dotoreak, *photocall*-ean aurpegi ezagunak. Bertatik pasatzen ari dira Rosa Maria Sardà, Lluís Homar, Sergi López, Pepón Nieto, Blanca Portillo, Loles León, Israel Galván...

MAX sarietako prentsa arduraduna kazetariari zuzendu zaie halako batean: "Siguiente... Kukai dantza konpainia. Optan a Mejor Elenco de Danza y Mejor Composición Musical. Orduan azaldu dira Jon, Alain, Urko, Ibon, Eneko, Nerea, Nagore eta Sabin Bikandi musikaria. Ohi baino dotoreago, urduri, inguruan bizi zuten harekin guztiarekin kokatu gabe bezala... "Eguna ospakizun baten moduan hartu genuen", esaten du Jon Maya konpainiako zuzendariak: "Horrelako gune batean egotea, MAX sarietan finalista izatea, jada bada nahiko aitortza, hori ospatzeko modukoa zen. Horregatik, Bartzelonara denak joan ginen, ederki bazkaldu, dotore prestatu... eta esperientzia bizitzera joan ginen". Baina gaua hori baino handiagoa izan zen. 'Gelajauziak' ikuskitzunik poz asko eman ditu, baina oraindik sorpresa bat gordeta zuen.



Marta Pich



Gala hasi orduko... Musika Konposizio Onenaren saria... Gure Sabin Bikandi eta Iñaki Salvador ohiko lankide eta laguna hautagaien artean... *Y el MAX es para SABIN BIKANDIIIIII!!!!* Taldea pozarren zen. "Sabin saria jasotzen ikus-tearren ordaindu egingo nuke", zioen Jonek gala hasi aurretik: "Sabin pertsona eta musikari handia da, lagun izugarria; berak erabiltzen duen espresiorari jarraituz, etxerako modukoa". Sabinen hitzak bere ohiko estiloan... Bere txikitasantetik handiak, erraldoiak. Bere etxeakoak, berekin dantzatu diren emakumeak, danboliteroak eta "Hizkuntza preindouropoan mintzatzen diren azken indigenak" izan zituen gogoan. Alegia, euskaldunak. Kukaitarrak eta etxean telebistaren aurrean ziren asko hunkitu zituen Sabinek. Bejondeizula lagun!

Gala aurrera zihoan... sariak, emanaldi musikalak... interpreteen sarien txanda iristear. Tartean, Kukai hautagai zen kategoria: *Dantza Elenko Onena*... Lydia Azzopardik eman behar du saria. Hasi da, hautagaiak izendatzen: Kukai, Sharon Friman eta Nómadas. "Ni lasai antzean nengoen, inongo aukerarik ez genuela argi nuen, baina behin uea iritsita...". *Y el MAX es para.... KUKAI DANTZA...*

Garraxi batean zutitu ziren kukaitarrak, elkar besarkatu... "Denbora geldirik bezala zegoen... Txaloak, musika... ezer entzun gabe besarkada horretan batu ginen". Halako batean, dantzari guztiak igo ziren eszenatokira. Pozarren, irribarre zabal-zabalekin, hunkituta... Jonek hartu zuen hitza. Eskertzak Cesc Gelaberti, lantalde osoari, Vanesa kideari,

Tanttaka teatroari... "eta aldarrikatu nahi nuke herri guztien kultura, izaera eta nortasun propioa; mundu honen aurreran ezberdin egiten gaituen hori: *Gora kultur aniztasuna eta herrien arteko errespetua!*".

Eta eszenatokian bertan besarkada batean batu ziren sei erreteriarak.

Modu batera edo bestera Kukai bizi eta sentitzen dutenentzat une berezia izan zen. Dantzariok saritzea ez zen soilik azken ikuskizunean egindako lana aitortzea. Jon Mayaren esanetan: "Elenko hau 2002. urtetik ari da Kukaien, bertan hazi, garatu... dira, eta hauekin batera garatu da Kukai Konpainia ere. Sari hau ibilbide bat, gauzak egiteko modu bat, nortasun propio batetik egindako lan baten aitortza ere bada".

Argi dago gertaera guztiek testuinguru bat dutela, eta Erretereria jazoera hauen lekuko izatea ez da kasualitatea. Dantzaren hazia jarri, loretxoak jaio, horiek elikatu, haiekin hitz egin, zaindu... Eta loratzen dira gehiago. Horrela izaten jarrai dezala!!!